

EAEEn, 2010ean, emakumeen aurkako indarkeria jasan zuten emakume gazteen tasak (%6,6) emakume guztien tasa bikoiztu zuen (%3,1)

Bi taldeei dagokienez, tasa horiek aurreko urtekoak baino zertxobait txikiagoak dira.


Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko zuzendaritzak jasotako datuak aztertu ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#). Azterketa horren arabera, 2010ean 15 eta 29 urte bitarteko mila emakume gaztetik 6,6 emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izan ziren. Emakumeen aurkako indarkeriatzat honako hauek hartzen dira kontuan: bikotekideak edo bikotekide ohiak burutzen duena, familia barrukoa baina bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatzen ez duena eta askatasun sexualaren aurka egiten dena.

Urte berean, EAEko emakume guztien artean tasa hori %3,1ekoa izan zen.

Nabarmentzekoa da aintzat hartzen ditugun emakumeak denuntzia jarri dutenak direla, indarkeria egoera agerian utzi dutenak, alegia. Erabaki honek hainbat erresistentzia gainditu beharra ekartzen du: kanpo erresistentziak (gezurra esaten ari zarenaren susmoari beldurra, gizartearen epaiketa, biktimizazio bikoitza...); barne erresistentziak (tratu txarren larritasuna txikitzea, kulpa sentimendua, lotsa...) eta beste batzuk, hala nola, hainbatetan gertatzen dena, denuntziak tratu txarrak areagotuko dituenaren beldurra.

2010 eta 2009ko datuak alderatzen baditugu, biktima izandako emakumeen tasak behera egin zuela ikus dezakegu, emakume gazteen artean zein emakume guztien artean.

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeen tasak (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko zuzendaritzaren eta INEren datuetatik abiatuta

Datu hauek hainbat gogoeta sortarazten dituzte: emakume gazteek emakumeen aurkako indarkeria gehiago jasaten dute? Edo emakume gazteek denuntzia gehiago egiten dituzte eta hori dela eta beraien problematika ageriago dago?

Edozein kasutan, indarkeriari aurre hartzeko ezinbestekoa da ikerketa eta sentsibilizazio lana. Honetarako beharrezkoa da gizartearen sektore guztiek parte hartzea, fenomenoaren dimentsio estrukturala zein sinbolikoa agerian gera dadin.